

“OSPITALE HANDIA” IPUINETARAKO GIDA DIDAKTIKOA

Ana M^a García de Motiloa Gámiz

1. JUSTIFIKAZIOA

Ospitaleko ikasgelan egiten diren jardueretan, kontuan izan behar da:

- Ikasleen aniztasunaren tratamendua, esparru askotan: adina, ospitalean daraman denbora, gaixotasun-mota, kultura...
- Curriculum-lana ez ezik, gaixorik dauden ikasleen bizi-kalitatea ere —zeinak lotura baitu haien egoerarekin, emozioekin, pentsamenduekin (batzuetan irrazionalak), harremanekin eta abarrekin— kontuan hartzeak eskatzen duen diziplinartekotasuna.

Beraz, oso garrantzitsutzat jo da gaixorik dauden ikasleei, curriculumarekin lotutako jarduerak ez ezik, haien gaitasunak garatzeko beste jarduera batzuk ere egiten lagunduko dien material espezifikoak prestatzea, haurrei emozioak eta gogo-aldateak adierazten lagunduko dien bizipenak trukatzeko, enpatia, autoestimua eta afektuzko eta komunikaziozko harremanak sustatzeko. Hala, **hezkuntza-arreta integrala** emango diogu.

Helburu hori lortzeko egin da **“Ospitale Handia”**, Ospitale Jaunak kontatutako bost ipuinez osatutako materiala. Ipuin bakoitzak dagokion material didaktikoa du:

1. Oinarrizko zenbait gaitasunekin lotutako helburu orokorrak eta espezifikoak.
2. Ipuinean landutako gaitasunekin lotutako edukiak.
3. JARDUERAK, inprimatzeko prest dagoeneko.

Hauek dira ipuinen izenburuak:

- 1.- Rosalinda eta Txomin, xiringa eta xiringo.
- 2.- Kolorezko hiru makilatxo eta Paulo Depresore jauna.
- 3.- Periko eta Kalista, tentsiometro artistak.
- 4.- Otoskopio, Mikroskopio eta Teleskopio kankailua.

5.- Arkadio doktorea, fonendo oso jakintsua.

Pertsonaia horiek lehen ere agertu ziren *Bost papagai. Ospitalerako ipuinak* ipuin-liburuan, eta, kasu hartan ospitaleko argazki soiltzat har zitezkeen arren, “Ospitale Handian” argazkitik kontakizunerako jauzia egin dugu, hots, askotariko edukiak lantzeraz garmatzaten abenturak eta egoerak kontatzen diren ipuinetarako jauzia.

1.1. Norentzat

Ipuin hauek lehen hezkuntzako ikasleentzat dira, batez ere bigarren ziklokoentzat, baina ezin da adin mugaturik ezarri, haur bakoitzaren gustuen eta lehentasunen arabera baita hori.

Halaber, gida didaktikoetan bildutako material pedagogikoa lehen hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleentzat izango litzateke.

Batez ere egonaldi laburretarako (astebetekoak) pentsatutako materiala da, baina egonaldi luzeagoetarako laguntza-material gisa ere erabil daiteke, non ikaslearen erreferentzia-zentroarekin koordinatuta lan egiten baita.

Ipuinak hiru hizkuntzatan daude:

- Gaztelania
- Euskara
- Frantsesa

Gida didaktikoak euskaraz eta gaztelaniaz daude.

1.2. Testuingurua

Ospitaleko hezkuntza-arretaren xede diren ikasleak familiarengandik eta lagunengandik bereizita daude, eta, oro har, ezezaguna zaien ingurune batean daude, ospitalean, eta, gaixotasunaren arabera, mina, larritasuna eta beldurra eragiten dieten probak edo ebakuntzak egiten dizkiete.

Alderdi horiek kontuan hartuta, ipuinen diseinuak eta material didaktikoak lotura estua dute ikasleak ospitalean izango dituen bizipenekin.

Ipuinak ospitale-ingurunean lan egiteko sortu dira, testuinguru normalizatuagoetara hedatuzkeen arren.

2. HELBURUAK

Gure lana garatzen dugun ospitale-testuinguruan, ipuina da tresnarik edo “botikarik” onenetako bat; izan ere, haren bidez gauza asko ikas ditzake ikasleak, curriculum-edukiekin ez ezik, eguneroko bizitzan lagunduko dioten estrategiekin ere lotura dutenak.

2.1. Helburu orokorrak:

- Ospitalean dagoen ikasleak sentimenduak, emozioak eta bizipenak adierazteko dituen aukerak aberastea, ipuinekin lotura duten materialen bidez.
- Enpatia, autoestimua, pentsamendu positiboa eta antzeko balioak indartzea, une zailak gaingitzeko estrategiak garatzeko.
- Ospitalean izandako bizipenetan ipuinetako pertsonaiekin identifikatu izanaren ondorioz irakurzaletasuna piztea, eta hala, ospitalean egotearekin lotutako egoera jakin batzuk erlatibizatzea.
- Bizikidetzarako eta tolerantziarako jarrerak garatzea, beste gaitasun, egoera pertsonal eta kulturetako hurrekin, ikasketa aberasteko.
- Mezu positiboak eta negatiboak identifikatzea, ospitaleko ikasleei ikasten lagundu diezaieten.
- Ipuinak abiaburu hartuta, oinarritzko zenbait gaitasun garatzea, ikasleei egoera berrien aurrean modu eraginkorrean jokatzeko laguntzeko.

2.2. Helburu espezifikoak:

- Mina umore-egoeren bidez adieraztea, kontrako bizipenak erlatibizatu ahal izateko.
- BELDURRA identifikatzea eta kudeatzea zenbait zentzumen-modalitate aldatuz, emozio-egoera jakin batzuei aurre egiten laguntzeko estrategia errazak eskuratzeko.
- Zenbait teknikaren bidez pentsamendu positiboa garatzea, zailtasunei modu errealistan aurre egiteko gai izateko eta, horren bidez, autoestimua sendotzeko.
- Behaketaren (begiradaren) bidez ENPATIA sustatzea, besteen lekuan jartzeko gai izateko.

- Enpatiaren oinarritzat ENTZUMEN AKTIBOA lantzea, ospitaleko ingurunean modu eraginkorrangoan jarduten lagunduko duten hitzezko eta keinu bidezko mezuak garbi adierazten ikasteko.

Ospitalean dauden ikasleek aukera izango dute beren burua ipuin horietako pertsonaia eta egoerekin identifikatzeko.

Ipuin bakoitzaren **helburu orokorrak eta espezifikoak** ipuinaren amaieran daude, helburuak jasotzeko prestatutako tauletan.

3. EDUKIAK:

Edukiak gaitasunen arabera xehatuta daude ipuin bakoitzaren amaieran.

4. JARDUERAK:

Ipuin bakoitzaren amaieran daude, inprimatzeko prest.

- ***Dokumentu-karpeta***

Ipuinekin lotutako jarduerak amaitzean, dokumentu-karpeta bat egingo dugu.

Horretarako, ikasle bakoitzak nahi duen bezala apainduko du landutako ipuinekin lotura duten jarduera guztiak jasoko dituen karpeta.

Motibazioarekin, ikasketaren gaineko gogoetarekin eta ebaluazioarekin lotutako zenbait funtzio betetzen ditu jarduera horrek:

- **Autoebaluazioa:**

Ospitaleko ikasgelan egindako jardueretan izandako aurrerapenak eta zailtasunak identifikatu ahal izango dituzte ikasleek.

- **Baterako ebaluazioa**

Parekoen artean: Gainerako kideek egindako lanak ezagutzeko eta baloratzeko aukera emango du, bai eta estrategiak eta prozedurak trukatzeko aukera ere.

- **Prestakuntza-ebaluazioa irakasleen** eskutik.

Ikasleek ospitalean egin duten lana ezagutzeko eta beren ekarpenak egiteko aukera ematen die **familiei**. Horretarako, orri zuri batzuk sartuko ditugu karpetan, familiek iruzkinak egin ditzaten.

5. OINARRIZKO GAITASUNAK, IPUINAK ABIAPUNTU HARTUTA

“Ospitale Handiarekin”, oinarrizko gaitasun batzuk garatzen laguntzen dugu, ikasleei laguntzeko curriculumarekin lotutako edukiak lantzen eta ospitalean eta handik kanpo integratzeko eta harreman egokiak ezartzeko portaera hezten.

Ipuinetan jasotzen diren oinarrizko zortzi gaitasunak hauek dira:

1. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna. Ipuinak: 1, 2, 3, 4 eta 5.
2. Matematikarako gaitasuna. Ipuinak: 1, 2 eta 3.
3. Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna. Ipuinak: 1, 2, 3, 4 eta 5.
4. Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna. Ipuinak: 1, 2, 3 eta 4.
5. Ikasten ikasteko gaitasuna. Ipuinak: 2, 4 eta 5.
6. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna. Ipuinak: 4 eta 5.
7. Autonomiarako eta ekimen pertsonalerako gaitasuna. Ipuina: 3.
8. Kultura humanistikorako eta artistikorako gaitasuna. Ipuina: 2.

6. METODOLOGIA

Ipuinak oinarri hartuta sortu den materiala garatzeko lan egingo dugun testuingurutik, hots, ospitaleko ikasgelatik, abiatuta, kontuan izan beharko dugu OSASUNA dela lehentasun nagusiko arazoia, eta haren mendeandaudela gainerako planteamendu pedagogikoak.

Haur bakoitzaren adina eta izaera, ospitalean daramaten denbora, eskola-historia eta ikasteko duten interesa kontuan hartu beharreko faktoreak dira. Horregatik guztiagatik, oinarri metodologiko hauei jarraitu behar zaie:

- Estrategia globalizatzailleak erabili behar dira, arazoak, egoerak eta gertaerak ospitaleko testuinguruan eta testuinguru normalizatuago batean jorratzeko aukera ematen duen gai baten inguruan antolatuz edukiak.
- Ipuinekin lan egiteko diseinatutako jarduerak oinarri hartuta, ikasketa esanguratsuak eraikitzea erraztuko da, eta irakaskuntza- eta ikasketa-jardueren eta ikasleek ospitalean nahiz handik kanpo eguneroko bizitzan izan ditzaketen egoeren arteko lotura bermatuko dira.
- Haur bakoitzaren berezitasunak eta ikasketa-erritmoa kontuan hartuko dira banakako arreta eskaini ahal izateko.
- Ikaslearen eta irakaslearen arteko interakzioa erraztuko da, talde txikitan, binaka edo talde handitan lan eginez.
- **Ikasgelako blogaren** bidez, ikasleek beren erreferentzia-zentroko ikaskideekin eta tutorearekin eta EAEko eta estatuko beste ospitale-ikasgela batzuetako ikasleekin interakzioa izatea sustatuko da.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua gauzatzeko giro egokia sortuko da, errespetuz eta konfiantzan jarduteko eta sentimenduak adierazteko aukera izateko.
- Oso kontuan hartuko da aniztasunarekiko arreta.

6.1. Lekuak eta denbora

- Ikasgelako lekuak:

Ikasgela girotu behar da, eta ikasleak talde txikitan edo banaka antolatu (ospitalean dagoen haur-kopuruaren arabera).

- Ikasgelatik kanpoko lekuak:
 1. Gelak: ohean dauden haurrak, ikasgelara joan ezin direnak.
 2. ZIU: eremu horretan egon arren hezkuntza-jardueraren bat egin dezaketen haurrak.

Denboraren antolaketa malgua izango da, eta kontuan hartuko dira beti ospitalean dauden ikasleen beharrak eta bakoitzaren adinari lotutako ezaugarriak.

Denboraren antolaketa saio bakoitzean:

Ahal dela, ipuinak lantzeko saioak bi ordukoak izango dira, goizez, eta atsedenaldiak egingo dira aldizka, ikasleak, bere gaixotasuna dela eta, behar duen orotan.

Arratsaldean, ordubete edo ordu eta erdi hartuko dira ipuinekin lotura duten eskulanak egiteko, edo, halakorik ezean, bideoak ikusteko eta bideoan ikusitakoari buruzko mahai-ingurua egiteko.

Saio bakoitzeko lanaren jarraitutasuna ikasleak ospitalean igaro beharreko denboraren arabera da.

- Ikasle bakoitzak eta irakasleak besteak agurtuz eta bere burua aurkeztuz hasiko dugu eskola.
- Taldea antolatu, eta bete nahi dugun lan-plana proposatuko dugu.
- Gero, proposatutako zereginak egingo dira, banaka nahiz talde txikitan, ikasgelan ikasle zaharrenentzat prestatutako eremuan.
- Lana bukatu ondoren, ikasgela eta materialak jasotzeko eta txukuntzeko ohitura hartuko dugu.
- Egingako lanari buruzko iruzkin bat egingo dugu amaieran.

6.2 Materialak

- **Material orokorrak:**

Ipuin guztietan material hau erabiliko da:

- Bost ipuin: "Ospitale Handia"
- Ipuin bakoitzeko jarduerak egiteko orriak
- Hiztegia
- Arkatzak, gomak, margoak, errotuladoreak, erregelak, artaziak...
- Ordenagailua
- Kontsulta-liburuak

- **Material zehatzak:**

- ***1. ipuina:**

- Erabili eta botatzeko xiringak
 - Botika-ontzi hutsak
 - Jarabe-flasko hutsak

- Medikamentuen esku-orriak

***2. ipuina:**

- Zotz depresore normalak eta koloretakoak
- Kaxa huts bat
- Neurtzeko zinta
- Bi aurpegiko emozio-txotxongiloak
- Bingoa: emozioen hotsak. (Akros)
- Jolastu gaitezen begitartearekin. (Andreu)

***3. ipuina:**

- Erlaxazio-musika: *The new age biomusic, album 1* CDa edo antzeko besteren bat.
- Neurtzeko zinta
- *10 pelos juntos o cuánto mide un milímetro* liburua (*Its Magical*)

***4. ipuina:**

- Mikroskopioa
- Teleskopioa (aukerakoa)
- Planetario interaktiboa
- Kaleidoskopioa
- Erabili eta botatzeko plastikozko botila bat
- Lupa normal bat
- Lupa txiki bat

***5. ipuina:**

- Erlojua
- Euri-makila
- Ikasgelako fonendoskopioa (egiazkoa)
- *Conoce tu cuerpo* joko elektronikoa (Diset)
- *Human Body* joko (Its Magical)
- Pegatinak

7. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ospitalean dauden ikasleek ikasgelan edo, batzuetan, handik kanpo (gelan, ZIUn...) egin duten lanaren bidez BEHA DAITEZKEEN JOKABIDEAK zehaztuko dira batez ere.

Gida didaktiko honetan zehaztutako helburu orokorrak ebaluatzeko, kontuan hartuko dira ikasleek adierazten dituzten eta oinarrizko gaitasunekin zerikusia duten adierazle hauek:

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna:

- Ikasleak interesa adierazten du ipuinen eta gelan lantzen diren bestelako testuen irakurketarekiko; bestelako testu horiek, batzuetan, beste haur batzuek idazten dituzte, ospitaleko esperientzian oinarrituta.
- Ikasleak ipuinetako mezuak identifikatzen ditu.
- Ikaslea gai da ipuinetan informazio zehatza lokalizatzeko eta berreskuratzeko, bai eta ipuinen irakurketan zuzeneko inferentziak egiteko ere.
- Ikasleak parte hartzen du ikasgelako komunikazio-egoeretan, eta truke-arauak errespetatzen ditu: hizketarako txanda gordetzea, entzutea, gauzak argi esatea eta tonu egokia erabiltzea.
- Gai da ahoz gauzak adierazteko, bai eta idatziz ere, modu erraz eta koherentean ezagutzak, ideiak, bizipenak eta ospitalean eta handik kanpo izandako emozioak adierazten dituzten testuen bidez.

Matematikarako gaitasuna:

- Gai da problemak ebazteko bete duen prozesua modu antolatu eta argian adierazteko.
- Gai da testuinguru errealean neurketak egiteko, ohiko unitateak eta tresnak hautatuz, kontuan hartuz neurtu behar den magnitudea, objektuaren izaera eta eskatzen den doitasun-maila, aldeztatik arrazoizko zenbatespenak eginez eta hartutako neurriak behar bezala adieraziz.

- Badaki ausazko joko errazen emaitzaren gaineko esperientzian oinarritutako zenbatespenak egiten (posiblea, ezinezkoa, segurua, probablea) eta emaitza hori egiaztatzen.
- Gai da ikasleak berak ospitaleari buruz bildutako datu-multzo baten irudikapen grafikoak egiteko, irakurtzeko eta interpretatzeko.

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna:

- Arnas eta zirkulazio-aparatuek giza gorputzaren bizi-funtzioak betetzen nola parte hartzen duten identifikatzen eta deskribatzen du, eta funtzio horien eta zenbait bizi-ohituraren arteko oinarritzko lotura batzuk ezartzen ditu.
- Medikamentuen eta errezeta medikoen datuak identifikatzen ditu testu irakasgarriak erabilia (esku-orriak, errezetak).
- Jarduera fisikoarekin lotura duten bizi-ohitura osasungarriak finkatzen hasi da, eta jarduera fisikoaren praktika egoki eta ohikoaren eta osasuna hobetzearen artean dauden zenbait lotura identifikatzen ditu.
- Txosten mediko bat interpretatzeko gai da.
- Badaki operazio-gela baten planoa interpretatzen.
- Otoskopioarekin eta mikroskopioarekin egiteko ikerketa errazak planifikatzen eta gauzatzen ditu.

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna:

- Informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzen ditu, ikasgelako blogaren bidez osasun-langileekin edo senitarteko eta ikaskideekin partekatuko duen informazioa bilatzeko eta lan-dokumentuak edo aurkezpenak prestatzeko.
- Gai da paperean nahiz euskarri digitalean ipuinekin zerikusia duen gai bati buruzko txosten bat prestatzeko, zenbait iturritan (zuzenekoak, liburuak, Internet) informazioa biltzeko, lan-plan bat betetzeko eta ondorioak adierazteko.
- Ipuinekin zerikusia duten adierazpen artistikoei buruzko informazioa bilatzen, hautatzen eta antolatzen du.

Ikasten ikasteko gaitasuna:

- Beste testuinguru batean, hots, ospitalean, ikasten jarraitzeko gaitasuna adierazten du.
- Behatzen, entzuten eta errespetatzen ikasi izana adierazten du.
- Gai da bere emozioekin lan egiten ikasteko eta bere burua ezagutzeari ekiteko.

Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna:

- Ospitaleko ikasgelako ikaskideekiko eta irakaslearekiko lotura eta enpatia sentitzen ditu, eta badaki pentsamendu positiboaren bidez ospitalean egoteak dakarren egoera arintzen.
- Badaki beste gaitasun, egoera pertsonal eta kultura batzuetako haurrak errespetatzen eta haiekin bizitzen.
- Koherentziaz planifikatzen ditu talde-proiektuak, eta badaki koordinatzen eta lankidetzan jarduten.
- Bizikidetzara-arauek errespetatzen ditu ikasgelan eta handik kanpo.
- Badaki taldean lan egiten, bere ideiak balioetsiz eta argudiatuz eta, aldi berean, besteenak aintzat hartuz eta errespetatuz.

Autonomiarako eta ekimen pertsonalerako gaitasuna:

- Gai da bere emozioak adierazteko ahoz, idatziz edo zenbait adierazpen artistikoren bidez.
- Bakarrik lan egiteko autonomia du, baina gai da talde-lanean koordinatzeko eta lankidetzan jarduteko ere.
- Badaki ahalegin pertsonalarekin egiten den lanaren kalitatea baloratzen.

Kultura humanistikorako eta artistikorako gaitasuna:

- Iritziak sortzen ditu eskuratu ditzakeen eta bere kabuz sor ditzakeen adierazpen artistikoen inguruan, haiekin gozatzeko eta ospitaleko aisialdiaren plangintzan integratzeko.
- Hainbat euskarritan erabiltzen diren materialek, ehundurek, formek eta koloreek ematen dituzten aukerak probatzen ditu.